



**MARIA ZUBIA TORRE**  
ARIZMENDI IKASTOLAKO  
ikasle bergararra

# DEBAGOIENEKO LANBIDE HEZIKETAKO **ESPERIENTZIAK**

**GAUR EGUN:**  
Mikroinformatikaren sistemak eta sareak  
erdi-mailako heziketa zikloa ikasten  
Arizmendi Ikastolan.

**IBILBIDEA:**  
DBHtik dator.



**GOIAZ! 2018**  
Lanbide Heziketaren Azoka  
**Apirilaren 17an eta 18an**  
Kulturaten, Arrasaten

  [goiazdebagoiena](https://www.facebook.com/goiazdebagoiena)



DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguneko  
eta Lurralde Oreko Departamentua

**Zergatik aukeratu duzu erdi-mailako ziklo bat egitea?**

DBH amaitu eta batxilergoa hasi nuen, baina letretako ikasgaiak ez zitzaizkidan gustatzen, eta, garbi dudanez nora heldu nahi dudan, ohikoak ez diren beste bide batzuk bilatzen hasi nintzen eta aukera hau topatu nuen.

**Eta nora heldu nahi duzu?**

Nik Ingeniaritza Informatikoa ikasi nahi dut. Eta horretarako, mikroinformatikarekin lotutako erdi-mailako ziklo hau hasiko zela jakin nuenean, ez nuen zalantzarik izan. Hemen bi urte egingo ditut.

**Eta ondoren?**

Arrasaten bertan, goi-mailako informatikako zikloa egingo dut, eta ondoren

unibertsitatera joateko asmoa daukat.

**Orduan, esan daiteke zure asmoa lortzeko beste bide bat aurkitu duzula. Zer moduz lehenengo urte hau?**

Gustura nago, asko gustatzen zait-eta arlo hau! Informatika munduan sakontzen hasi gara: muntaia, programazioa, sistema eragileak, sistemak, azpisareak... horrelako gaiak lantzen ditugu, eta bagoaz geroz eta gehiago ikasten.

**Informatika arloa nahiko maskulinoa izan da orain arte. Baina ikusten da emakumezkoen artean ere hasi dela interesa pizten.**

Bai... bueno, hamabost ikaskidetatik lau gara neskak.